

Aurrera garamatzan hori

Giza zibilizazioaren galera kutsadura atomikoak edo birus hilgarri batek eragingo duela diote batzuk. Kalentura globalak eragingo duela esaten dute beste batzuk, kapitalismoak ekarri duela deritzote Marxialista ausartenek. Ugari izan daitezke etorkizun ilun horretara garamatzaten bideak, ugari horra ez garamatzatenak. Bide bakarra da, baina, dabilkiguna. Urkoarekin gabiltz, oinez edo lasterka. Urkoa hor dago bidean jaio eta hiltzen garen bitartean, urkoa da bidelagun iraunkor bakarra, izan ere badaude iraunkorrak ez diren beste bidelagunak, hots abentura zoragarri bat, memoria on edo txar bat, gosea, hotza edota maitasuna bera. Urkoa bada iraunkorra den gauza bakarra, urkoa bada dirauena, bidean agertzen garenetik desagertzen garen arte, urkoa da bidea bide egiten duena. Urkoak definitzen du bidea, beraz. Urkoak esaten du noiz hasi eta noiz bukatzen den. Urkoa da existitzen dena eta iraunkorra dena, urkoa da banakoa bidera lotzen duena, eta urkoarekiko erlazioa, lotura bera. Banakoa, urkoa eta bien arteko lotura, hori da bidean dagoena.

Zer da gizakia, baina, autodeterminista ez bada? Zertarako gaude hemen erabakitzeke ez bada? Definitu dugu bidea zer den eta bidean zehar dirauena zer den, erabaki dugu banakoaren botereak bidea aukeratu eta urkoarekin erlazioak erein edo suntsitzean datzala. Banakoek aukeratzean gizakiak aukeratzen duelako, zuk aukeratzen duzulako, nik aukeratzen dudalako, funtsean, denok aukeratzen dugulako. Aukeratzeko botereak definitzen du banako eta urkoaren arteko erlazioa. Aukera banako orok dauka. Banakoen multzoak (taldeak) aukeren arabera tira egiten du urkoengandik, banakoen bideen konbergentzia definituz. Banakoaren aukerak eragina du taldearen aukeran, eragina emaitzan, zibilizazioaren eboluzioan. Loturak dira, funtsean, taldearen indarra. Loturak dira gizakiak nahi duen bidea aukeratzeko darabilguna, zibilizazioaren eboluzioa definitzen duena. Bada, zertan ari gara lotura horiek malgutzen? Zertan ari gara urkoa hutsal bihurtzen? Zertan individualismoa goraiatzten duen gizarte honi men egiten? Bide honek portu jakina du. Bide honetatik giza zibilizazioa ez da katastrofe ikusgarri baten eskuetatik erailko, hiltzen joango da, garuna bailitzan, banakoen loturak hautsiz, urkoa desagerraraziz, bakarrik egon arte. Zibilizazioa banakoen eta hauen arteko loturen sare erraldoi bat bada, nola iraungo du loturarik gabe?

Badira, baina, lotura berriak eraikitzeke erabakia hartu dutenak, ahal dutelako, nahi dutelako. Zibilizazioaren salbatzaileak dira. Zu ere izan zaitezke salbatzailea. Lotura berriak ezartzen dituzun bakoitzean, edozer dela ere sortzen duzun bakoitzean. Lotura zaharrak malgutu edo hausten dituzun bakoitzean ere bai, noski, lotura berriei irekitzen baitiezu atea.